

23. ORDENANTZA

Ordenantza fiskala, Udalak antolatzen dituen kiroleko ikastaro edo jardueretarako sarrera, izen emate edo matrikulagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duena

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen lehenengo tituluko III. kapituluaren 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz ezarri da, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

KONTZEPTUA

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udalak kirol arloan urtean antolatzen dituen programa, jarduera edo ikastaroetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo bertze edozein antzeko kontzeptua dela eta, prezio publikoak aplikatzeko bertze ordenantzetan sartuta ez daudenean.

KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETA ARAUAK

3. artikulua. Prezio publikoa ordaindu beharko da sarrera hartu edo izen ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ordainduko dira ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

6. artikulua. Kirol programa hauetako erabiltzaileak: Kirol programen erabiltzaileek, dela kirol eskoletakoek, dela gazte eta helduendako jardueretakoek, dela hirugarren adinekoendako jardueretakoek, kasu bakoitzean prestatutako dokumentuaren arabera jokatu beharko dute, hartan jasotzen baitira Udalaren kirol jardueren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

TARIFAK

7. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira, edo egin behar diren jardueren ezaugarri bereziei jarraikiz kasuan-kasuan ezarriko dira.

2011KO TARIFEN ERANSKINA

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Kirol eskolak (euro/ikastaroa):	64,00	96,00
Gazte eta helduendako jarduerak (aerobica, yoga, mantentzea, dantza jazz, lerroko patina, defentsa pertsonala eta bertzelako jarduerak, 15 lagun baino gehiagoko taldeetan).		
Astean saio bat (euro/lauhilekoa):	24,00	38,00
Astean 2 saio (euro/lauhilekoa)	48,00	77,00
Astean 3 saio (euro/lauhilekoa)	72,00	115,00
Gazte eta helduendako jarduerak (gehienez ere 15 laguneko taldeetan)		
Astean saio bat (euro/lauhilekoa)	67,00	100,00
Astean 2 saio (euro/lauhilekoa)	133,00	199,00
3. adinekoendako kirol jarduerak (euro/ikastaroa)	34,00	52,00